

Lehen Hezkuntza

GEURE AZTARNA KALKULATZEN

PLANETA BAT BAKARRIK DAUKAGU

Zain dezagun!

Munduko biztanle bakoitzak kontsumitzen duen ingurumen zatia neurtzen du **AZTARNA EKOLOGIKOAK**

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Norberaren autonomia eta ekimena
- Zientzia-teknologia
- Matematika



Ekintza

Idea deigarri honen bidez, berehala eta begiratu batean ulertzen du ikasleak zenbateraino garen gizakiok, gure bizimoduak, Lurrari eragiten dion inpaktuaren erantzule. Gure planetako biztanle guztiak (6.500 milioi) lurralde garatuetaok bezala biziko balira, zenbat planeta beharko genituzke?

Irakasleak aldatu edo laburtu egin dezake galdera-sorta, ikasleei egokitzeke. Ikasgelako emaitzak aurkezteko, hainbat aukera daude: aztarna handia marraztea, horma-irudia egitea eta ikastetxeko horma batean jartzea...

1. Nola joaten zara ikastetxera?



puntuak

Oinez edo bizikletaz	<input type="radio"/>	0
Autobusez edo trenez	<input type="radio"/>	10
Autoz	<input type="radio"/>	20

2. Zer garraibide erabiltzen duzu oporretara joateko?



puntuak

Nire herrian/hirian geratzen naiz	<input type="radio"/>	0
Autobusez edo trenez	<input type="radio"/>	2
Autoz edo autokarabanaz	<input type="radio"/>	4
Hegazkinez	<input type="radio"/>	8

3. Asteburuetan, berriz...



puntuak

Nire herriko/hiriko kaleetan jolasten dut, lagunekin	<input type="radio"/>	0
Ibilaldiak egiten ditugu, trenez edo autobusez	<input type="radio"/>	2
Ibilaldiak egiten ditugu, autoz	<input type="radio"/>	4
Normalean, autoz egiten ditugu bidaiak	<input type="radio"/>	6

4. Zenbat ordu ematen dituzu egunean telebistaren, ordenagailuaren edo bideokontsolaren aurrean?



puntuak

Inoiz ez dut telebistarik ikusten	<input type="radio"/>	0
1 eta 3 ordu bitartean	<input type="radio"/>	4
3 orduetik gora	<input type="radio"/>	6



Mungiako Institutuko argazkia

5. Piztuta uzten dituzu argia, telebista edo ordenagailua gelan inor ez dagoenean?



Ez, inoiz ez	<input type="radio"/>	0
Minutu gutxi barru itzuli behar badut, bai	<input type="radio"/>	4
Normalean, bai	<input type="radio"/>	6

6. Nola itzaltzen duzu telebista?



Telebistaren botoia sakatuta	<input type="radio"/>	0
Urrutiko agintearekin	<input type="radio"/>	4

7. Kanila zabalik uzten duzu hortzak garbitzen ari zaren bitartean?



Ez	<input type="radio"/>	0
Bai	<input type="radio"/>	4

8. Etxean norbaitek zabalik uzten badu...



Ixteko esaten diot, ur gehiegi gastatzen da eta	<input type="radio"/>	0
Ez diot ezer esaten	<input type="radio"/>	4

9. Birziklatzen duzue zaborra zure etxean?



Bai; bereizi egiten ditugu papera, plastikoa, ontziak eta beira	<input type="radio"/>	4
Batzuetan bakarrik	<input type="radio"/>	10
Inoiz ez. Gure etxean, dena poltsa berean jartzen dugu	<input type="radio"/>	20

10. Erabiltzen ez dituzun jostailuak eta jokoak...



Jostailurik ez duen norbaiti ematen dizkiot edo garbigunera eramaten ditut birziklatzera	<input type="radio"/>	0
Erabili ez arren, gorde egiten ditut, edo zakarrontzira botatzen ditut	<input type="radio"/>	4

11. Zenbat opari jaso zenituen Gabonetan?



3 baino gutxiago	<input type="radio"/>	2
3 eta 6 bitartean	<input type="radio"/>	4
6 baino gehiago	<input type="radio"/>	6

Galdera guztiei erantzun diezu? Ederki!
Orain, zenbatu lortu dituzun puntuak.
Zenbat planeta behar dituzu?

Adibidez: 50 puntu badituzu, 3,65 planeta behar dituzu.

puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak	puntuak	planetak
4	1,00	14	1,58	24	2,15	34	2,73	44	3,31	54	3,88	64	4,46	74	5,04	84	5,62
5	1,06	15	1,63	25	2,21	35	2,79	45	3,37	55	3,94	65	4,52	75	5,10	85	5,67
6	1,12	16	1,69	26	2,27	36	2,85	46	3,42	56	4,00	66	4,58	76	5,15	86	5,73
7	1,17	17	1,75	27	2,33	37	2,90	47	3,48	57	4,06	67	4,63	77	5,21	87	5,79
8	1,23	18	1,81	28	2,38	38	2,96	48	3,54	58	4,12	68	4,69	78	5,27	88	5,85
9	1,29	19	1,87	29	2,44	39	3,02	49	3,60	59	4,17	69	4,75	79	5,33	89	5,90
10	1,35	20	1,92	30	2,50	40	3,08	50	3,65	60	4,23	70	4,81	80	5,38	90	5,96
11	1,40	21	1,98	31	2,56	41	3,13	51	3,71	61	4,29	71	4,87	81	5,44		
12	1,46	22	2,04	32	2,62	42	3,19	52	3,77	61	4,35	72	4,92	82	5,50		
13	1,52	23	2,10	33	2,67	43	3,25	53	3,83	63	4,40	73	4,98	83	5,56		